

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Proiektuz beteta
datorren urtea**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Haurren eta nerabeen kontrako sexu
indarkeriak salatzeako telefonoa:
688 758 299



Ale honetan zer?

28,3 milioi euroko aurrekontua3

Gehien igo den partida: inbertsioak4

Herriko ekonomiaren bidelagun8

Gizarte Zerbitzuak, gero eta sendoago 10

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuak erregistratu, errolda agiriak atera, eskaera orokorrak eta lizentzia eskaerak aurkeztu edo kontsultak egin ditzakezu bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik, ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



28,3 milioi euroko aurrekontua

Udal langileekin eta batzordeetan landu ostean, eta auzoz auzo egindako bileren eta postontzien bidez herritarren ekarpenak jaso ostean, abenduaren 18ko udalbatzarrean onartu zituen Azpeitiko Udalak 2026ko aurrekontuak, EH Bilduko hamar zinegotzien aldeko botoekin eta EAJko zazpi zinegotzien abstentzioarekin.

Hala, 28,3 milioi euroko aurrekontuarekin hasi du urtea. Iazko urte hasierako aurrekontuarekin alderatuta, %6koa izan da igoera. Aurrekontu bateratua, hau da, Azpeitia Berritzen ere kontuan hartzen duena, 29,4 milioi eurokoa da.

Aurrekontuak onartzeko udalbatzarrean, Leire Goenaga Ogasun batzordeburuak adierazi zuen “zuhurtziaz eta arduraz” prestatutako aurrekontuak

Aurrekontu bateratua, Azpeitia Berritzen ere kontuan hartzen duena, 29,4 milioi eurokoa da

direla. Diru sarreretan ere %6ko igoera aurreikusten da, udal finantzaketarako foru funtsetik diru gehiago jasoko delako, ordenantza fiskaletan igoerak egin direlako eta beste administrazio publiko batzuetatik zenbait dirulaguntza lortzea espero delako.

Udalak eskerrak eman dizkie aurrekontuak osatzeko ekarpenak egin dituzten guzti-guztiei.

Gehien igo den partida: inbertsioak


Datu sorta handia biltzen dute aurrekontuek, baina zerbait nabarmentzekotan, inbertsioek izango duten igoera da aurtengo bereizgarrietako bat. Hain zuzen ere, %15eko hazkundea izan du inbertsioen partidak, eta gehien igo den atala izan da. Guztira, ia 2,6 milioi euro bideratuko dira inbertsioetara.

Era guztietako proiektuak daude aurreikusita: kirolari lotutakoak, jolaserako guneak hobetzekoak, irisgarritasunari begirakoak, mantenuarekin zerikusia dutenak... Aurtengo aurrekontuetan sortu diren partida berriez gain, kontuan hartzekoa da iazko aurrekontuei dagozkien proiektu batzuk ere martxan daudela dagoeneko, eta aurtun amaituko dituztela.

Honako hauek dira aurtun argia ikusiko duten inbertsioetako batzuk.

KOMUNA LASAOKO BIDEGORRIAN

Postontzien bidez jasotako ekarpenetan, Lasaoko bidegorrirako komuna eskatu dute herritarrek. Beharrezko inbertsioa dela iritzita, 80.000 euro gorde ditu udalak bidegorri horretan komun bat jartzeko.



PERDILLEGIKO JOLASTOKIA

Izarraizpe ikastola publikoan, LHko haurrak hartzen dituen Perdilegiko eraikinean, udalak iaz hasi zituen jolastokia berritzeko lanak, 575.000 euroko aurrekontuarekin. Azken txanpan sartuta daude lan horiek. Aurtengo aurrekontuetan, beste 110.000 euro ere jarri dira jolastoki horretan estalki bat egiteko.



Urte hasierako aurrekontuan, ia 2,6 milioi euro jaso dira inbertsioetarako

IGERILEKU AURREKO PARKEA

Estimazio handia izaten dute estalitako parkeek, batik bat euri egunetan. Igerileku aurrean dago horietako bat. Estalkia handitu egingo du udalak, jolaserako eremu zabalagoa izan dezaten haurrek. Estalki berriarekin, gutxi gorabehera, oraingo eremuaren halako bi geratuko da babespean. Horrez gain, parkearen ondoan, autobus geltokitik igerilekura arteko espaloia berritu egingo du udalak, eta autobus geltokietako markesinak aldatu egingo ditu. Eremu horretan egingo den inbertsioak 330.000 euroko aurrekontua du guztira.



IZARRAIZKO ATEA

Berdegune ederra da Izarraizko Atea, eta, azken urteotan, asko handitu da eremu horretara joateko ohitura, batik bat uda garaian. Ur txoroen gunea handituko du udalak, bero egunetan ere, igerilekuaz aparte, aisialdirako beste aukera bat eskaintzeko herritar guztiei. 150.000 euroko partida jarri du.



BERRIKUNTZAK BI PARKETAN

Umeentzako parke asko dago herrian, eta aldiro-al-di-ro konpontzen eta berritzen ditu udalak. Aurtun, Urbitarte eta Garmendi auzoetakoak berrituko ditu, 90.000 euro inbertituz.



GARMENDIPEKO KIROLGUNEA

Astegun zein asteburu, erabilera handia du Garmendi-pekoko kirolguneak, bai kirol taldeen aldetik, bai eta herriko gazteen aisialdiari lotuta ere. Datozen urteei begira, kirolgune hori hobetzea da udalaren erronketako bat. Horregatik, 500.000 euro jarri ditu futbol zelaiaren gunean zer hobekuntza egin daitezkeen proiektatzeko eta lehen lanekin hasteko.



AISIALDIRAKO GUNEA EUSKAL HERRIA AUZOAN

Euskal Herria auzoan, Uztaro haur eskolaren ondo-ko eremuan, aisialdirako berdegune bat egingo du udalak. Azken urteotan, erabilera argirik ez du izan eremu horrek, eta udalari toki egokia iruditu zaio, mahai eta eserleku batzuk jarritz, aisialdirako gune bat egokitzeko. 175.000 euroko aurrekontua du proiektuak.



Dagoeneko hasita dauden zenbait proiektu aurten amaituko dituzte, hala nola Etxe Alai eta Urrestillako berrurbanizazio proiektuak eta Udaltzaingoaren lokala

UDALTZAINGOAREN LOKALA

Udaltzaingoaren egoitza Plaza Txikitik Olazko Andre Mariaren plazara lekualdatuko du udalak, txiki geratu baita gaur egungoa; hain zuzen ere, zortzigarren zenbakiaren ondoan eta Center Point ingeles akademiaren azpian egongo da egoitza berria. Iaz hasi zituzten lanak, eta ekainerako amaitzea espero du udalak. Proiektuaren barruan, ingurua ere berrurbanizatuko du, besteak beste, karakolera doazen eskailerak.



SANTUTXOKO ESKAILERAK

Udaltzaingoaren lokalaren eta karakolaren arteko eskailerak ez ezik, Olazko Amaren plazan bertan, Santutxora arteko eskailerak ere berrituko ditu udalak. Zati bat dagoeneko berrituta dago, eta falta den zatia berritzeko 150.000 euro jarri ditu.



ETXE ALAI ETA URRESTILLA

Etxe Alai eta Urrestillako berrurbanizazio lanak amaierara iristen ari dira. Aurreko bi urteetan, lehen eta bigarren faseak egin dituzte batean zein bestean, eta aurten hirugarren eta azken faseari ekingo diete. Urrestillan, 295.000 euro inbertituko ditu udalak, eta Etxe Alain, 435.00 euro.



DONE JAKUE KALEKO TOPALEKUA

Partaidetza prozesu baten bidez diseinatu da Done Jakue kalean, Frontoi Txiki ondoan, egingo den topalekua nolakoa izango den. Adostutako hori gauzatzeko urtea izango da aurtengoa.



PLAZAKO TRASTELEKUA

Urte amaieran entregatu zitzaizkien giltzak Enparan kaleko eta Elizkale-Erdikaleko trastelekuen erabiltzaileei. Udalak plazan egingo du hirugarren trastelekua, Alde Zaharreko bizilagunek izan ditzaketen espazio arazoei aurre egiten laguntzeko. Lokala dagoeneko erosita du udalak, eta lokal horretan trastelekuak egitea tokatzen da orain. Hasiera batean behintzat, hamabost trasteleku izango ditu plazako lokalak, eta horietako zortzi esleituta daude. Itxaron zerrenda ere badago, eta zerrenda horretako kideekin egingo den zozketatarekin esleituko dira gainerakoak.



Herriko ekonomiaren bidelagun

Tokiko ekonomia indartzea lehentasun estrategikotzat duela berretsiz, aurten ere udalak 400.000 euro bideratuko ditu sustapen ekonomikoko laguntzetara. Laguntza horiek honako helburu hauek dituzte: jarduera ekonomikoa bultzatzea, enplegua sortzea eta herriko enpresa eta ekintzaileei babes eraginkorra eskaintzea.

lazko aurrekontuetan ere 400.000 euro jarri zituen arren, udalak ahalegin berezia egin zuen jasotako eskaera guztiei erantzuteko, eta azkenean 486.000 euro bideratu zituen laguntza horietara. Guztira 137 eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 122 onartu zituen.



“Udalaren laguntzak oso egokiak dira gure moduko enpresentzat”.

Jone Zubizarreta eta Aitziber Orbegozo
Aizgo Burdinlanakeko bazkideak

Lau laguntza-lerro biltzen ditu programak: zerbitzuen eta lehen sektorearen jarduera sendotzea; industria proiektu estrategiko eta berritzaileak eta eraikuntza sektorea sustatzea; ekintzailetza sustatzea; eta zerbitzuetan, ostalaritzan nahiz industrian enplegua sustatzea.

Aizgo Burdinlanak eta Odriozola Harategiko kideek beren esperientzien berri eman dute.

25 urte beteko ditu aurten Aizgo Burdinlanak enpresak. Galdaragintza industrialean aritzen da, eta pieza eta egitura metalikoak egiten ditu, txikietatik hasi eta 20 tona arte, hainbat sektoretarako. 12-13 lagunekoa lantaldea du. Jose Ignacio Aizpurua, Jone Zubizarreta, Aitziber Orbegozo eta Ander Ucin dira bazkideak.

2001ean sortu zenuten Aizgo, baina zuen historian badago mugarri bat: 2018an lekuz aldatu zineten, Anardi industriadetik Badiolegitxo eremura. Zer ekarri dizue horrek?

Txiki geratu zitzaigun lantegia, eta apustu handia egin genuen. Hona aldatu ginenetik, asko hobetu dugu: dibertsifikatu egin gara, lan askoz gehiago hartzea lortu dugu, tona handiagoko proiektuak.

Horrek, noski, inbertsio handietan sartzea esan nahiko du, ezta?


Bai. Pabiloi handiagoak eta lan mota berriek etengabeko inbertsioak eskatzen dizkigute, bai makinerian, bai proiektu berrietan; bestela ere, enpresa batean, etengabe jarraitu behar duzu hobetzen. Horregatik, sustapen ekonomiko laguntzak oso ondo etortzen zaizkigu.

Zertarako eskatu izan dituzue laguntzak?

Baliabide produktiboak hobetzeko, kontratazioetarako eta eguzki plakak ezartzeagatik zerga kuotaren hobaria lortzeko ere bai; iaz, planta digitalizatzeko laguntza eskatu genuen, eta jaso genuen. Enpresetan beharrak sortzen dira, eta behar horiei erantzun behar diezu; ez duzu erabakitzen inbertsio bat egitea edo norbait kontratatzea laguntzak daudelako, baina laguntzen dute.

Zeren arabera erabakitzen duzue zertarako eskatu laguntzak?

Iraurgi Berritzen agentziak asko laguntzen digu: geldiarazi egiten gaitu, pentsarazi, eta bestela aztertuko ez genituzkeen inbertsioak aztertzea bultzatzen gaitu. Beti pentsatzen duzu laguntzak enpresa handientzat direla, baina ikusi dugu ezetz. Udalaren laguntza hauek oso egokiak dira gure moduko enpresentzat.



“Espiral on batean sartzeko aukera ematen dute udalaren laguntza hauek”

Valentin Odriozola
Odriozola harategia

Sustapen ekonomikoko laguntzen barruan, merkataritza eta lehen sektoreko jarduerak indartzera dago bideratuta partidetako bat. Harakina da Valentin Odriozola, eta Arana kalean du Odriozola harategia. Negozioa “atzean ez geratzeko”, ezinbestekoa iruditzen zaio etengabe berritzen joatea.

Zure kasuan, zer inbertsio egiten lagundu dizute sustapen ekonomikoko laguntzek?

Aurten, adibidez, kanpoko argiak eta toldoa aldatu ditut.

Laguntzak eskatzen zenituen lehen aldia zen?

Ez, azken bospasei urteetan, urtero eskatu ditut. Enpresa batean, berrikuntzaren bat egin nahi izanez gero, ez zara laguntzen zain egoten, baina gero diru bat jasotzen baduzu, pizgarri bat da inbertitzen jarraitzeko; hau da, nik toldoa aldatzeko asmoa nuen, eta laguntzetan sartu egin naiz; beraz, hurrengo urtean inbertitzeko ere diru bat badaukat dagoeneko.

Sustapen ekonomikoko laguntzetatik jasotzen duzuna berriro inbertitzeko ohitura duzu?

Bai, lortzen dudun dirua nik berriz ere inbertitu egiten dut. Nire ustez, espiral on batean sartzeko aukera ematen dute laguntza hauek: urtero-urtero inbertitzen laguntzen dute. Aurten, hozkailu bat erostea dut buruan. Noski, nire poltsikotik ere jarri beharko dut dirua, baina laguntzak beti etortzen dira ondo.

Negozio txikion kasuan ere, garrantzitsua izango da etengabe berritzen joatea, ezta?

Oso garrantzitsua, ez bazara eguneratzen, atzean geratzen zara, bai estetikoki eta baita beste arlo batzuetan ere. Gure kasuan, adibidez, tresnei erabilera handia ematen diegu, hondatzen joaten dira, eta berritu egin behar dira. Bertan elkarteko kide ere banaiz ni, eta hark ere asko laguntzen digu laguntzen tramitazioan; ikusten dudanagatik, esango nuke komertzio asko ari garela inbertsioak egiten.



Gizarte Zerbitzuak, gero eta sendoago

Azpeitian zerbitzu publiko “onak” daudela. Pertzepzio hori jasotzen du udalak herritarren aldetik. Hala ere, gaur egun indarrean dauden zerbitzuak indartzeko, eguneratzeko, herritarren beharretara egokitzeko eta, behar izanez gero, zerbitzu berriak martxan jartzeko asmoa du udalak.

Aurten, ia milioi bat euro erabiliko du udalak etxez etxeko zerbitzuaren kostua ordaintzeko

Zerbitzuen barruan, nabarmentzekoa da azken urteotan Gizarte Zerbitzuek izan duten aurrekontu igoera: lau urtean, ia milioi batean handitu da sail horretara bideratzen den diru kopurua. Aurten, 3,4 milioi euro izango dira Gizarte Zerbitzuentzat; hau da, aurrekontu osoaren %12.

Gizartea zahartzen ari da, eta gero eta adineko gehiago dago Azpeitian ere. Horrek, besteak beste, zaintza premiak handitzea ere badakar. Gizarte Zerbitzuen barruan, pisu handia du etxez etxeko zerbitzuak. Oraindik etxean bizitzeko gai diren edo horretarako hautua egin duten mendeko pertsonen zaintzarako zerbitzua da.

Beste herri askotan ez bezala, egunez eta gauez eskaintzen da zerbitzu hori Azpeitian, eta eskaera guztiei erantzuten zaie. Gizarte Zerbitzuen aurrekontuaren barruan, aurten, 976.000 euro erabiliko ditu udalak etxez etxeko zerbitzuaren kostua ordaintzeko.

LANGILERIAREN KOSTUA, GORA

Kirol zerbitzuetan, Emakumeen Txokoan, gazterian, hezkuntzan, euskara sailean, kulturen, etxebizitza eta energia bulegoetan eta gainerako udal zerbitzuetan ere beharrezko baliabideak jartzen jarraitzeko moduko aurrekontuak osatu dira 2026rako.

Kalitatezko zerbitzu publikoak eskaini ahal izateko, ezinbestekoa da zerbitzu horiek emango dituzten

langileak kontratatzea eta baldintza duinak eskaintzea ere. Horregatik, langileriari dagokion partidan, %7,6k igoera onartu du udalak aurrekontuetan.

Udalaren egitekoa da zerbitzu publiko egokiak eskaintzea herritarrei, baina udalak ez ezik, herriko beste eragile askok ere rol garrantzitsua jokatzen dute zeregin horretan. Elkarlanaren garrantziak badu isla aurrekontuetan ere. Besteak beste, hitzarmenen formula erabiltzen du udalak herriko eragileei lanerako behar dituzten baliabideak eskaintzen laguntzeko. Horrekin batera, dirulaguntza programa zabala du, eta hala jaso du 2026ko aurrekontuetan ere.





Energia Bulegoa

943 11 98 06

energia@azpeitia.eus

Ordutegia:

Astelehen, astearte, asteazken
eta ostiraletan, 10:00etatik
14:30era. Ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

www.azpeitia.eus